# BEGOÑAZPI
ASTEKARIA

begoñazpi ikastola

2022ko urtarrilaren 27a

## ALTXORRAREN BILA

**GAUR EGUNGO HEZKUNTZAK UMEEN JAKIN-MINA ETA IKASTEKO GOGOA PIZTU BEHAR DAU.**



Gehiago

- PODKASTA: HUMANITATEAK HEZKUNTZAN
- HEZKUNTZA BARRIKUNTZARI BURUZKO NAZIOARTEKO KONGRESUAN
- HEZKUNTZA ZUTABERIK ONENAK BEGOÑAZPIK ESKAINIKO DEUTSUZ

# JAKIN-MINA ETA IKASTEKO GOGOA, ITSAS MUSEOAN

Gaur egungo hezkuntzak umeen jakin-mina eta ikasteko gogoa piztu behar dau. Azken baten, ulertzen ikasteko, ikaskuntza eredu dinamikoak behar dauz. Horixe da Begoñazpi eredua. Lehen Hezkuntza 1. mailako proba Itsas Museoan.







**HISTORIA IRAKASLEA DAN MARKEL LOPATEGIK ETA FILOSOFÍA IRAKASLEA DAN EMILIO MAÑASEK, EUREN IKUSPEGI ZEIN IRITZIA ADIERAZI, GOGOETA EGIN ETA PARTEKATU EGIN DEUSKUE.**

## HUMANITATEAK HEZKUNTZAN

Barrikuntzaren Arbeleko saio honetan humanitateen irakaskuntza izan dogu hizpide: humanitate eta zientzia uztartuz, gaur egungo hezkuntzan filosofiaren rola, teknologiaren erabilera, pentsamendua sakontzeko beharra... Solasaldi interesgarria, benetan.

## BEGOÑAZPI, HEZKUNTZA BARRIKUNTZARI BURUZKO NAZIOARTEKO KONGRESUAN

Orain dala egun batzuk, Begoñazpi Ikastolak CEU Universidad San Pablok Madrilen antolatutako Hezkuntza eta Irakaskuntza Berriztatzeko Nazioarteko III. Biltzarrean parte hartu dau. Bertan, mundu osoko hezkuntza adituakaz hitzaldi eta mahai-inguruak partekatu dauz.



europapress / sociedad / educación

El Congreso Internacional de Innovación Educativa y Docente del CEU reúne a expertos de 15 países y más de 30 centros

Europa Press Sociedad

Newsletter

MADRID, 18 Ene. (EUROPA PRESS) - El III Congreso Internacional de Innovación Educativa y Docente, organizado por el CEU y en el que participan más de 350 personas, reúne durante los días 18, 19 y 20 de enero a expertos de quince países y más de 30 centros educativos, según ha informado la institución.

Zure seme-alabentzat etorkizunik onena nahi dozunez, Begoñazpi Ikastolak hezkuntza zutaberik onenak eskainiko deutsuz. Irakaskuntza aurreratua, eredu barritzaileenetan oinarritua, neurrira eta egokitutako hezkuntza, euskalduna eta ikasleak ardatz dauzana.